

EZKIO-ITSASO / Berogailu ekologikoa kokatu zuten asteburuan liburutegian

Berogailu ekologikoa kokatu zuten asteburu honetan Ezkio-Itsasoko liburutegian; martxan dago dagoeneko eta prentsaturako egurra erabiltzen da honek beroa emateko.

EZKIO-ITSASO. DV. Ezkio-Itsasoko liburutegia Santa Lutzi auzoko kultur etxeke beheko solairuan kokatuta dago. Hau arratsaldeetan egoten da irekita normalean eta bertan liburuak irakurri eta hauek maileguz hartzeko aukera dute herritarrek, liburutegiko karneta eskuratuz gero.

Liburutegian eta kokatzen den eraikuntzan berrikuntzak egin behar dira, baino proiektua oraindik aztertzen ari dira Udalakoek, eta hau horrela dela, behin behineko berogailua bertan kokatzea pentsatu zuten.

Asteburu honetan bertan kokatu zuten berogailua liburutegian eta funtzionatzen ari da dagoeneko.

Aukeratutako berogailua oso sistema garbia eta ekologikoa du. Honetan prentsaturako egurrez egindako makil zati txiki antzeko ak sartzen dira eta honekin lortzen da sua, eta noski beroa. Gainera, berogailua programatzeko aukera ere badago eta honekin liburutegia ireki baino lehen hau tenperatura egokia lortzeko aukera ematen du.

Orain arte liburutegian berogailu txiki desberdinak kokatzen ziren gela berotzeko eta bertan bero egon ahal izateko. Dena den, eta hemendik aurrera, egin beharreko berrikuntzak zehaztu arte, berogailu berri hau erabiliko dute bertan.

Berogailu berria jarri ondoren, gela isolatzeko intentzioa dute ere, berogailuarekin lortzen den beroa alde egin ez dezan.